

**KANALAK**

Gure negozioaren kanal nagusiak publizitatea, ahoz ahokoa, Interneta eta sare sozialak dira. Nagusiki internet bidez izango da gure negozioa birtuala baita. Internet bidez zabaltzeko bide onenatarikoa sare sozialak dira, beraz hauek ere erabiliko ditugu. Bezeroekin internet bidez komunikatuko gara nagusiki, baina ofizina bat edukiko dugu Zarautzen kokatua. Hornitzaileekin, oso modu antzekoan komunikatu gara, errazago baita internet bidez komunikatzea, horrela edozein ordutan edozein lekutan daudela komunikatu gaitzke. Publizitatea ere egingo dugu zenbait modu desberdinetara, horretarako dugu gure marketing arduraduna. Beste enprekin kolaboratzean ere saiatuko gara beraien bidez publizitatea egiten, adibidez: euskotrenekin bere geltokietan gure iragarkiak jartzen saiatuko gara. Azkenik, ahoz ahokoa dela garrantzitsuena esan dezakegu, hau baita modu eraginkorrena.